

2.GAIA

Ikerketa proiektu bat egiteko zenbait pauso jarraitu behar dira, lau dira hain zuzen ere.

1-Ikergaia

Ikerketa proiektu bat definitzeko lehenengo pausoa ikergaia definitzea da. Beraz, ikerketa bat gauzatzeko ezinbestekoa da ikergai bat (ikergaia ez da gaiaren berdina) izatea. Koherentzia ematen dio ikerketari.

Zer da ikergaia? Ikergaia ikertu nahi dugun horren definizio zehatza da. Hau da, ikertu behar den gaiaren zehaztapena dela esan daiteke.

Ikergaia kontsideratzeko bi elementu beharrezkoak dira : Ekintza Soziala + Aspektua

Zer da ekintza soziala? Ekintza Sozialak gizartean elkarrekintza bat suposatzen duten jarduera, portaera, taldeak... dira. Ekintza Sozialek gizartea zer den deskribatzen dute. Gizarte baten oinarrian elkarrekintza dago eta beraz, ekintza sozialek elkarrekintza bat suposatzen dute.

Ondorioz, ikergaia definitzeko, lehenbizi aztertu behar den elkarrekintza mota zein den zehaztu beharko da. Adb. Unibertsitateko 1.mailako ikaslea edo Sol-en protesta (bietan elkarrekintza bat dago, beraz, ekintza sozialak dira)

Zer da aspektua? Elkarrekintzari ematen zaion itxura da aspektua, hau da, elkarrekintza zein begirunetik ikusten den. Beste era batera esanda, aspektuak normalean ondorengo galderari erantzuten dio: nola aztertuko dut?

ADB: zeba protestatzen dute Sol-en? zein da Sol-eko protestaren helburua? zein da ondorioa?

Izan ere, ez da berdina elkarrekintza baten kausak edo ondorioak aztertzea, oso ikerketa desberdina egin baitaiteke aspektuaren arabera. Horrenbestez, aspektuaren begiradarekin, ekintza soziala zein begiradarekin aztertu den erabakitzen da.

Horrez gain, fenomeno bat aztertu behar denean (NON eta NOIZ) leku eta denbora jakin batean aztertzen da. ABD: soleko protestak 2019an madriden. Fenomenoa non eta noiz gertatzen den definitzea ere ezinbestekoa izango da ikergaia zehazteko.

Ikergaiak ezin du INOIZ balore juiziorik izan. Hau da, ikergaia zehaztean ezin da posizionatu eta karga subjektiboak ezabatu egin behar dira.

Adibidea

Ekintza Soziala: Soleko protestak

Aspektua: Ondorioak

Non: Madrilen

Noiz: 2019

Ikergaia: 2018an Madrilen Soleko protesten ondorioen azterketa.

- 2018an Madrilan Soleko Protesta JENDETSUEN ondorioen azterketa-
Aurreko esaldi horretan balore juicio bat dago, izan ere, jendetsua dela edo ez esatea ez da beharrezkoa gaia ulertzeko.

-.....SOLEKO GAZTEEN PROTESTEN....

Ikergai hau berriz, egokia izango litzateke, izan ere gaztea izateak lekua uzten du nahi den adin tartea edo pertsona multzoa dela pentsatzeko.

Hala ere, ikergaian azaltzen diren modulo kontzeptualak lantzea beharrezkoa da.

Zer dira modulo kontzeptualak? Modulo kontzeptualak ikergaia zehaztu baino lehenago definitu beharreko aldagaiak dira. (Adb. Gaztea). Modulo kontzeptualak ikergaian koherentzia bermatzen dute eta kanporazko komunikazioa ahalbidetzen dute. (ADB. gazten protestak aztertzeko lehenago definitu egin behar da zein diren gazteak ikerketaren ustez). Horiek definitzeko, ikerlehen artean, adostasun batera iritsi beharko da. Definizio desberdinak aztertu behar dira, ondoren definizio propio bat sortzeko. (ADB. gazteen adin tartea 16-30 urte bitartekoena izan daiteke.)Horrez gain, hasieran zehaztuko den modulo kontzeptualaren definizioa ikerketa osoan zehar mantendu behar da. (ADB. ezin da 31 urteko pertsona bat aztertu, gazteak 16-30 urte bitartekoak direla esan baita). Era honetan, argi geratzen da zein den aztertutako taldea.

2-Helburuaren zehaztapena

Ikerketaren bigarren pausoa, helburuen zehaztapena da.

Zertan datza helburuaren zehaztapenak? Ikerketaren xedea, bidea, norabidea markatuko duten adierazpen zehatzak dira helburuak. Gure ikerketaren zertarakoari erantzuten diote, zertarako egiten ari gara ikerketa? zer lortu nahi dugu ikerketarekin?
Beraz, helburuak ikerketaren norakoa baldintzatzen du.

Helburu motak

Bi helburu mota daude: helburu orokorra eta helburu zehatzak.

Helburu orokorrak ikerketa osoa hartzen du bere baitan eta ikerketan aurrera eramango den ekintza adierazten du. Helburu zehatzek aldiz, ikerketaren etapa bakoitzean egingo dena adierazten du. Beraz, ikerketaren aspektu partzialak hartzen dituzte bere baiten helburu zehatzek. Helburu zehatz guztien batura helburu orokorra izango da.

Nola idatzi helburuak orokorra?

Helburu orokorra= ikergaia+zertarako?

Hala ere, ezin da edozein motatako helburu orokor asmatu.

Adibidez, Zertarako interesatzezait madrideo sol-eko protestaren ikerketa? agian, kezka bat daukadalako edo ekintza bat bultzatu nahi dudalako.

Nola idatzi helburu zehatzak? Aspektuak lagunduko digu helburu zehatzak jartzen. Adb. Sol-eko protesten ondorioak badira, gure buruari galdetu behar diogu zeintzuk izan daitezken horren ondorioak.

Modu aseptikoan eta posizionatu gabe idatzi behar dira helburuak. Horretarako, hasierako formulaziotik abiatuta zenbait hitz aldatzea gomendagarria da aseptikoa izateko. . Adibidez, errepresioa erabili beharrean, biolentzia erabili beharko da.

Horrez gain, Gizarte Zientzietan, orokorrean, bost helburu zehatz baino gehiago ez idaztea aholkatzen da. Horregatik, hasieran egiten den aurreikuspen horretan elementu asko atera ezker ere, zenbait bakarrik aukeratu beharko dira.

Beharrezkoa da koherentzia izatea helburuak definitzerako orduan, koherentziaren ardatza aspektua da. Izan ere, helburuak eta aspektua guztiz lotuta joan behar dira.

ADIBIDEA

Helburu orokorraren adibide bat.

Ikergaia hau izanik: 2019an Kataluniako grebaren zergatien azterketa.

Zertarako nahi du in ? Poluzazioaren ekintza kolektiboak ulertzeko.

Helburu zehatzak. Zeintzuk izan daitezke zergatiak ?

- Presoak
- Epaiketak
- Lan baldintzak
- Independentzia
- Erabakitze eskubidea
- Errepresioa

Esaldi errazionalak, loturak sortuz. Helburu zehatz bat izan daiteke:

- Kataluniako greba eta epaiketaren arteko harremana aztertu (ez du esaten zein dan harremana, esaten du aztertu inbehar deula)
- Kataluniako greba eta presoaren arteko harremana ikertu
- ezberdintasun egoerak agerian utzi

3. MARKO TEORIKOA:

“Gure iritzia ez zaio inori importa”.

Adib.: Berdintasuna Euskal Herrian azken 50 urteotan.

1. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA. OROKORRETIK, ZEHATZERA.

- Oinarria (kanpoko kapa): Berdintasuna, eta bere perspektiba desberdinak (korranteak, autoreak...).
- Mugimendu feminista.
- Bigarren kapa: berdintasuna, mugimendu feminista... nola plazaratu den Euskal Herrian.
- **Datuak.**

2. ITURRIAK:

- Manualak, aldizkari akademikoak (artikuluak), liburuak.
- Ezinbesteko kriterioa: FIDAGARRITASUNA. Horretarako, autorea, publikatutako lekua, urtea konprobatu behar da.
EZ FIDAGARRIEN ADIBIDE BAT: eskolako apunteak, blog-ak, wikipedia, el rincón del vago, RAE (Real Academia Española)...

3. ITURRIEN PLAZARAKETA (Zitak):

- Autorea eta urtea. Kakotx artean baldin bada: autorea, urtea eta orrialdea.
- Pluralitatea: Autore desberdinen erabilera.
- Parrafo osoak inoiz ez. Esaldiak bakarrik.

4.Hipotesiak

Hipotesietara iristean aspektuetatik tiraka jarraitu behar da, ikerketari zentzua ematen baitio.

Zer dira hipotesiak? Hipotesiak zerbaiten inguruan azalpena bilatzen duten suposidio edo erantzun probisionalak dira. Ikerketa batean, ikergai planteatutako galderaren emaitza posibleak, hain zuzen ere.

Hipotesiak marko teorikoaren ondoren egiten dira, izan ere, marko teorikoa eraikitzea ezinbestekoa da hipotesiak bilatzeko. Marko teorikoak informazioa ematen baitigu hipotesiak egiteko.

Zertarako idazten ditugu? Gure ikerketaren emaitza posibleak aurreikusteko idazten dira. Horrez gain, berdin da hipotesiak amaieran betetzen diren edo ez. Izan ere, hipotesiaren funtzioa ikerketa mugatzea da.

Azaldu moduan, ikerketa on bat, pixkanaka mugatzen joan behar da, zehazten eta hipotesiek aurreikuspenak egitea ahalbidetzen dute, ikerketa gidatzeko.

Laburbilduz, hipotesiak orientazio bat dira, ikerketa bideratzen laguntzen dutenak. Ondorioz, probisionalak dira, eta ez dira erantzunak, erantzunak bilatzen laguntzen dutenak baizik. Eta, noski, ez dira teoria, teoria bilatzen lagunduko digute.

Zeintzuk dira hipotesiak ondo idazteko baldintzak?

1-Zenbat helburu zehatz, hainbat hipotesi. Hau da, bost helburu zehatz definitu badira, bost hipotesi idatzi behar dira. Helburu zehatz bakoitzari, hipotesi bat dagokio eta.

Helburu zehaztetan ez da posizioa adierazten, hipotesietan berriz, helburu zehatzak posizionatzen dira.

ADB. Generoaren eta lanaren arteko harremana (helburu zehatza). Emakumeek lan baldintza okerragoak dituzte (hipotesia)

Honek esan nahi du, agian marko teorikoa egin ondoren, helburu zehatzak errebisatu behar direla. Izan ere, konturatu gaitzke beste batzuk errebisatzea komeni dela.

2-Hipotesiak esaldi bakunak izan behar dute. Hau da, ez dute esaldi konposatuak izan behar, ahalik eta sinpleenak izan behar dute, kontzeptualki argiak. Beraz, esaldi bakunak idatzi behar baditugu, esaldian ez litzateke inoiz ETA azaldu beharko. ETA EZ. Horrez gain, ezin da, baldintza adierazten duten esaldirik adierazi (balitz adb.)

3-Neurgarriak izan behar dute. Elementu bakar batek osatu behar du hipotesia. Izan ere, elementu bat baino gehiago edukiz gero, baliteke bat betetzea eta bestea ez. Beraz, hipotesiaren zati bat soilik betetzen denez, hipotesia ez da zuzena.

ADB. Gaur hotza eta euria egin du. Hau ezin da konprobaatu, izan ere agian euria egin du eta ez hotza, edo alderantziz. Beraz, egokia ondorengoa izango litzateke.

ADB. Gaur euria egin du edo Gaur hotza egin du.

ADB. Egungo gazteek alkohola eta marihuana hartu besterik ez dute egiten.

Nola neurtzen dut hau? Ezin dira bi elementu hartu kontuan hipotesi bakar batean.

Adibidea

Helburu zehatza: Zinemara joatearen eta sarreraren prezioaren arteko harremana aztertu

-Zinemako sarreraren prezioak jende gutxiago joatea eragiten du (hipotesia, poszionatua)
GAIZKI

-Sarreraren igoeragatik jende gutxiago joaten da zinemara (h, p) GAIZKI

GUTXIAGO JARTZEN BADA, NOIZ BAINO GUTXIAGO ADIERAZI BEHAR DA. Beraz, ondorengoa da zuzena:

-Zinemako sarreraren prezioak jende gutxi joatea eragiten du

5-Aldagaien operazionalizazioa

Ikerketa proiektu baten definizioan oso puntu klabea da aldagaien operazionalizazioa. Gizarte Zientzietan oinarrizkoa da, ez da arlo guztietan erabiltzen.

Zer da aldagaia? Aldagaiak gure ikergaiaren ezaugarri behagarriak dira, aspektuaren ezaugarri behagarriak.

ADB. Sarreraren prezioa, migrazioa, erlijio pluraltasuna, hizkuntza, gizarte posizioa, generoa, klase soziala, preso kopurua...

Aldagaien sailkapena

Modu desberdinetan sailkatu daitezke aldagaiak.

-Naturaren araberako aldagaiak: kuantitatibo eta kualitatiboak

-Kuantitatiboak: Kantitatea hartzen dute kontuan, izaera numerikoa hartzen dute. Hau da, kontatu egin ditzakegu. Jarraiak edo diskretoak izan daitezke.

-Jarraiak: Baloreak/kategoriak edozein interbalo baten barruan izan daitezke.
ADB. Adina,(baloreak zenbaki guztiak dira, 30 edo 1.6 urte izan ditzaket, edo 1urte 6hilabete, 6egun...),pisua, denbora...

-Diskretoak: Ezin dute tarteko balorerik hartu, beti balore osoak, hau da 3 eta ez 3.5.

ADB. Ikasle kopurua, ezin ditut 30.5 ikasle izan.

-Kualitatiboa : Kualitatea neurtzen dute, ez dira kontagarriak numerikoki. ABD. Generoa, migrazioa, kolorea...

Kolorea aldagaia da eta bere kategoriak berdea, gorria, urdina... dira, ez dira kategoria numerikoak.

-Izaeraren araberako aldagaiak: Nominalak, ordinalak eta eskala modukoak

-Nominalak: kategoria desberdinak hartzen ditu bere baitan, baina kategori horien artean ezin dugu inongo ordenik adierazi.

ADB. Generoaren (kategoriak, emakume, gizona, ... ezin dira ordenatu, jerarkizatu)
ADB. Kolorea, ilearen kolorea...

-Ordinalak: Aldagai ordinaletan kategoriak ordenatu daitezke, sailkapena posiblea da, baina ezin daiteke esan distantzia bera dagoenik kategorien artean.

ADB. Klase Soziala (kategoriak, goi maila, maila ertaina eta behe maila; ez dago distantzia bera goi maila eta erdi mailaren artean eta behe maila eta maila ertainaren artean).

ADB. Ideologia politikoa (kategoriak, eskuin extremo, eskuina, zentro eskuina, zentro ezkerra...)

-Eskala modukoak: Eskalen barruan bi azpi sailkapen dauzkagu

-Interbalozko aldagaiak: Kategorien arteko sailkapen eta distantzia bera dago, baina ezin daiteke 0 absolutorik ezarri.

ADB. Tenperatura, 0 gradu baldin badaude. 0 ak ere balio bat du tenperaturan. Ez dago 0 absolutorik, izan ere 0 ere tenperatura bat da.

-Proporzio edo arrazoizko aldagaiak: ADB. Aldiz, 0 eurok ez du baliorik, pisua, altura... Proporziozkoetan badago 0 absoluto bat.

-Posizioaren araberako aldagaia: Independentek eta menpekoak

-Independentea: Independentea izango da aldagai horren aldaketak gainontzekoen aldaketa eragiten duenean.

ADB. Sarreren prezioa, jendea kopuruan aldaketa eragiten duelako. Sarreren prezioak sortzen du aldaketa.

ADB. Generoa, adina,... ez daude aldagairik hauek aldatu ditzakena.

-Menpekoa: Beste aldagai baten aldaketak berarengan aldaketa bat suposatzen duenean.

ADB. Mobilizazioa, emakumeen grebak eragiten dio

Zure ikerketaren jokoak aldagaiak aldatzen ditu.

ADB. Botereak ospea sortzen du. Aldagai indep. Botere, Aldagai menp. Ospea

ADB. Ospeak boterea sortzen du. Aldagai indep. Ospea, Aldagai menp. Botere

Zer da operazionalizazioa? Prozesu bat da. Prozesu horrek honakoan datza: Aldagai nagusitik tarteko aldagaira, eta tarteko aldagaietik indikadorera igaroteko prozesua. Aurrekoari operazionalizazioa deitzen diogu.

Zertarako egiten da ? Prozesuak hipotesiak zehatzen laguntzen du. Helburua hipotesiak neurgarriak egitea da. Neurtze horretan zein datu, nola eta zergatik galdetu behar ditugun jakitea.

ADB. Gizarte harremanen inguruko ikerketa bat. Jakin nahi dut, jendea bakarrik dagoen edo harremanak badituen. Ezin naiteke joan eta pertsona bati galdetu: harremanak dauzkazu?

Izan ere, desberdin ulertu dezake galdera pertsona bakoitzak.

Horregatik, operazionalizazioa egiten da galdera hori egin ahal izateko eta harremanarekin zer esan nahi dugun ulertzeko.

Kontuan izan behar da, operazionalizazioa ez dela kontzeptua definitzea. Bilatzen dena, kontzeptuaren desintegrazioa da. Gauzak beste era batera galdetzeko.

Operazionalizazioa subjektiboa da.

Horrez gain, ezinbestekoa da gure ikerketarako tresnak eraiki ahal izateko.

Adibidea

Hipotesia : Gizarte klaseak lan aukeretan eragiten du.

Aldagaia: Gizarte klasea - Lan aukera

Aldagaia indep (nagusia): Gizarte klasea

Gizarte klasea ze aldagaien bitartez azaldu dezakegu? Zein dira bere tarteko aldagaiak, nola neurtu daiteke?

ALDAGAI NAGUSITIK TARTEKO ALDAGAIRA

-Ahalmen ekonomikoa

-Bizi baldintzak

-Estatua

-Sailkapena

-Ideologia

-Ikasketa maila

-Kultura

TARTEKO ALDAGAITIK INDIKADORERA (Indikadore bakar batek ez du aldagaia zehazten) Indikadoreak behagarri/neurgarri/zehaztatu egiten du aldagaia. Hau da, aldagaia behagarri indikadoreak egiten du.

-Ahalmen ekonomikoa

- Hilabetean kobratzen duen soldata gordina
- Hilabete batean dauzkan gastu ekonomikoak
- Pertsona batek bankuetxean aurreztua duen dirua
- Pertsona batek dituen etxe kopurua

Prozesu berdina egiten jarraitu behar da tarteko aldagai guztiekin.

Bizi baldintzak

- Etxebizitza
 - Etxea kokatzen den auzoko errenta maila
 - Etxe batean edo pisu batean bizi geran
- Lan baldintzak
 - Egun batean egiten dituen lan orduak
 - Kontratatuak dauzken lan orduak

Laburbilduz, operazionalizazioaren helburua da ikerketa aurrera eramateko, galderak beste era batean planteatzea, hasierako kontzeptua zehaztuz. Prozesuaren bidez indikadoreak zehazten dira, indikadore hauen bidez egin beharko dira galderak. Ondoren, galdera horien erantzunen bidez aldagai nagusiaren ondoriora iritsi daiteke.

Ikergaia egiten da behagarri aldagaien bitartez eta aldagaia indikadoreen bitartez egiten da behagarri. Horretarako, operazionalizazioa egiten da, hasierako aldagaia behagarri edo neurgarri bihurtzeko. Indikadoreak oso zehatza izan behar du.

Adibide gehiago

-Ezkertiarra (aldagaia tartekoa)

Indikadoreak bilatu

- Errepublikaren alde edo kontra egotea
- Abortoaren alde egotea
- Langileen eskubideak defendatzea
- Eutanasiaren alde egotea

ARIKETA PERTSONALA

Hipotesia: Egungo gizartea indibidualistagoa da orain dela 10 urtekoa baino

Aldagia: indibidualismoa eta egungo gizartea

Beraz, operazionalizazioa iteko bi aldagai desberdin hartu behar dira bi aldagaiak

Aldagaia: Indibidualismoa

Tarteko aldagaiak:

-Interesak

Indikadoreak:

- norberaren interesen arabera jokatu
 - guztion onura bilatzen duten interesen arabera jokatu
- GEHIAGO ZEHAZTU BEHAR DIRA

-Harreman motak

Indikadoreak:

- Bakarrik egoteko joera
- taldean harremantzekoa
- sare sozialetan soilik harremantzeko joera
- Harreman eza
- Bestekin zenbat egoten garen
- Oso gutxietan egoten garen gure ingurukoekin

-Solidaritatea

- Besten egoera zailen aurrean jarrera empatikoa izatea
- Bakoitzak bere esforzuaren arabera merezi duena daukala pentsatzea

-Ideologia

- Ideologia liberala

ARIKETA ZUZENDUTA

- Harremanak
 - Zenbatetan egoten zean lagunekin astean zehar
 - Zenbat hartu eman sare sozialen bitartez astean zehar
- Kontsumoa
 - Etxera ekartzen dizutenean
 - Konsumitzen dudana zenbatetan partekatzen dan
- Familia
- Interesak

BESTE ARIKETA ZUZENDUTA

Hipotesia: Gazte delikuentzia familia desegituraketarekin lotuta dago

Aldagai: Gazte delikuentzia

Aldaga: familia desegituraketarekin

*Hipotesia honakoa izango balitz: Gazte delikuentzi familia desegituraketak sortzen du.

Aldagai independetea: Familia desegituraketa

Aldagai menpekoa: Gazte delikuentzia

Tarteko aldagaiak:

- Droga:
 - Droga ilegalak saltzea astean zehar
 - Droga ilegalak kontsumitzea astean zehar
- Ekintza:
 - Astean lapurtutako bizikleta kopurua
 - Etxe bizitzetako paretak margotzea
 - Inor bizi ez den etxeak okupatzea baimenik gabe

6. Diseinu metodologikoak

Zer da diseinu metodologikoa? Diseinu metodologikoak bi galderari erantzuten die: NOR eta NOLA

Hau da, diseinu metodologikoak gure informatzaileal NOR izango diren eta haiengana zein tekniken bitartez, hau da, NOLA iritsiko garen zehazten du.

Beraz, bi elementu horiek azaldu behar dira diseinu metodologikoa deritzon atal honetan.

NOLA

Zein eratarako iritsiko gara informatzailearengana? Zein pauso emateko prest gaude eta zein teknika erabiliko ditugu?

TEKNIKAK

Bi modutakoak izan daitezke: kualitatiboak eta kuantitatiboak

Teknika motak

Teknika kuantitatiboak aldagaien elementu neurgarriak behatzen laguntzen dute.

Teknika kualitatiboak, berriz, elementu ez neurgarriak behatzen laguntzen dute. Elementu subjektiboak, karakteristikoak, diskurtsiboak...

Zeintzuk dira bi tekniken arteko desberdintasunak?

	Teknika kuantitatiboak	Teknika kualitatiboak
HELBURUAK	Ekintza errealak ematen diren bezela, objetiboki aztertzea bilatzen dute, beste antzeko ekintzekin antzekotasunak bilatuz.	Gizarte fenomenoak gertatzen diren ingurunean, bertan, naztertzea du helburu, horrela giza portaeraren aspektu subjektiboari garrantzia emanez.
EMAITZAK	Indize, ratio, taulak erabiltzen dituzte ekintza sozialak deskribatzeko. Zenbakiak, portzentaiak...	Errelatoak, diskursoak, zitak...
EZAUGARRIAK	Objetibotasuna Neutraltasuna Erantzuneko gaitasuna Zehaztasuna	Subjektibotasuna Empatia Aberastasuna Gertutasuna

TEKNIKAK	Inkesta Soziometria Eskalak	Sakoneko elkarrizketa Behaketa zuzena Eztabaida taldeak
-----------------	-----------------------------------	---

INGURUNEA	Ingurune natural zein laborategietan egin daitezke	Ingurune naturalean egin daitezke soilik.
------------------	--	---

IKERKETAREN DISEINUA	A priori diseinatzen da ikerketa. Ikerketa baten pauso guztiak jarraitzen dira, ikergaiaren definizioa, helburuak zehaztu... Metodo induktiboa	A priori eta a posteriori ere diseinatu daitezke. Posible da lehenagoko diseinurik gabe aztertzea, eta behatutakoak laguntzea diseinatzen. Metodo induktibo eta deduktibo
-----------------------------	---	--

MALGUTASUN TEKNIKOA	Teknikak aurretik erabakitzen dira	Malgutasuna dago teknikak erabakitzeko, momentuan eta ikusten deunaren arabera aldatzeko.
----------------------------	------------------------------------	---

MARKO TEORIKOA	Marko teoriko eto hipotesi batzuetatik abiatzen da ikerketa.	Marko teoriko eto hipotesi batzuetatik abiatzen da ikerketa. Hala ere, posible da hipotesi batzuetatik ez abiatzea.
-----------------------	--	---

LAGINKETA	Unibertsoaren, hau da, aztertzen ari garen pertsonen ordezkagarriak aukeratu behar ditugu. Horretarako, zoriaren bidez aukeratu behar dira pertsonak. ADB. Deustoko lehenengo mailakon asebetetze maila gela kalitatekiko. Lau pertsona aukeratuko dira, azterketa gauzatzeko.	Aztertzen ari garen fenomenon arabera izan behar da.
------------------	--	--

INTERPRETAZIOA	Unibertsalizatzeko joera dute. Jende kopuru bat aztertu eta ondorio unibertsala atera.	Diskurtsoak sortu nahi ditu. Ez unibertsalizazioak.
-----------------------	--	---

Zein dira teknikak?

Inkesta

Zer da? Galdetegi baten bitartez informazioa jasotzeko teknika kuantitatiboa da.

Sakoneko elkarrizketa

Zer da? Informazioa lortu asmoz, elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da. Klabea informazioa eta profesionaltasuna da. Horrez gain, elkarrizketa hauetan konfiantza giroa sortzea ezinbestekoa da, horretarako garrantzitsua da leku egoki baten gauzatzea (jende gutxi dagoen lekua, zaratarik gabeakoa...). Gela lasai bai guztiz egokia izango litzateke eta elkarrizketari behar duen denbora eskaini behar zaio.

Garrantzitsua da elkarrizketa periodistiko eta sakoneko elkarrizketak desberdintzea.

Abantailak

-Sortzen den konfiantza giroak eta intimitate giroak asko laguntzen du gai konplexuak lantzeko orduan. Adibidez, genero biolentziari buruzko elkarrizketa bat gauzatzeko sakoneko elkarrizketa bat egitea ezinbestekoa da.

-Gaien arrazoi sakonak ezagutzeko oso tresna baliagarria da

-Gai baten inguruan informazio gutxi dagoenen informazio gehiago lortzea ahalbidetzen du, informazioa duten pertsonengana gerturatzeko aukera ematen baitu.

-Elkarrizketak guk gauzatu ezker beste teknika batzuk baino merkeagoa suertatzen da.

Desabantailak

-Elkarrizketatuak arazoak izan ditzake bere iritzia egituratzeko. Izan ere, zaila izan daiteke koherentzia egotea diskursoan, ondo artikulatzea...

-Beti elkarrizketatuaren menpe gaude, kontatu nahi ez badigu, ez digu kontatuko nahiz eta konfiantza asko landu...

-Elkarrizketatzailearen itxurak, tonok, aurkezpenak, eragina izan dezake elkarrizketatuaren portaeran. Izan ere, duen espektatibak, hitz egiteko erak... influentzia handia du.

Eztabaida taldean:

Zer da? Informazioa lortzeko asmoz, moderatzailea eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida. Moderatzailea, ikerketa gidatzen duen pertsona da.

Eztabaida taldeak homogeenak eta heterogeenak izan daitezke.

Homogeenak elkarrizketa gai berdinen inguruan perspektiba berdina duten pertsonak osatzen dute.

Heterogeenak elkarrizketa gai berdinen inguruan perspektiba desberdina duten pertsonak osatzen dutenean.

Eztabaida talde gauzatzeko sei pertsona dira egokiak, 10 gehienez. Pertsona guztiek hitzei dezaten bermatu behar da. Izan ere, horretarako dira deituak.

Abantailak

-Taldea zirkulatu lana egiten du bere horretan

-Oso teknika ona da iritzi perspektiba desberdinak dauden prozesuen arlo guztiak ezagutzeko

Desabantailak

- Gai batzuk ez dira taldean aztertzeko egokiak
- Elkarrizketatzailearen itxurak, tonoa, aurkezpenak, eragina izan dezake elkarrizketatuaren portaeran. Izan ere, duen espektatibak, hitz egiteko erak... influentzia handia du.
- Taldearen menpe gaude atera behar ditugun ondorioetan

Bizitza historia:

Zer da? Lotura handia dauka sakoneko elkarrizketarekin baina bizitza historiaren helburua pertsona baten inguruan ahalik eta datu gehien biltzea da. Desberdintasuna da, bizitza historian behin baino gehiagotan pertsonarekin egotea ezinbestekoa dela, bere bizitzako perspektiba osoa jasotzeko.

Abantailak

- Konplizidatea sortzen bada informazio gehiago jasotzea errazagoa da
- Merkeagoa da guk egiten badugu, beste teknika batzuk baino

Desabantailak

- Elkarrizketatuak arazoak izan ditzake bere iritzia egituratzeko. Izan ere, zaila izan daiteke koherentzia egotea diskurtsoan, ondo artikulatzea.
- Beti elkarrizketatuaren menpe gaude, kontatu nahi ez badigu, ez digu kontatuko nahiz eta konfiantza asko landu...

Behaketa zuzena

Zer da? Behaketak pertsonen portaera inongo manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatua jasotzea datza, hori bere helburua izanik. Behaketak oinarrian kanpotikako begirada du, baina sistematikoa izan behar du. Behaketa egiteko a priori pentsatu behar da zer den behatu nahi dena

Abantailak

- Ikertzaile bezala eragin gutxigoa du, jendeak askotan ezpaitaki behatua izaten ari dela.
- Baldintza naturaletan egiten denez, errealitatea den bezela behatu daiteke
- Guk erabakitzen dugu zer den behatu nahi duguna, kriterioak eta zer interesatzen zaigun erabakiz.
- Jarrera ezkorrak gainditu daitezke, ez baita ezer eskatzen (ez diou inorri ezer kontatzeko eskatzen)
- Informazioa biltzeko oso tresna baliotsua da

Desabantailak

- Orainaldian gertatzen diren fenomenoak bakarrik behatu ditzakegu
- Askotan zaila da behatu nahi den fenomeno gertatzen den lekuan egotea
- Fenomeno asko ezin dira zuzenean behatu
- Lana agerian egiten bada, ikusten bagaituzte, pertsonen portaera alda daiteke
- Ikertzen ari garen horrekiko, harreman afektiboak garatu daitezke.

NOR

Nor hartuko dugu kontuan gure ikerketan, nor izango da gure informatzailea?

LANGIKETA

Zer da lagina? Zer da langinketa? Lagina, gure unibertsoaren zati adierazgarria da. Hau da, gure unibertsoaren ezaugarri berak dauzkan pertsona taldea. Honen ezaugarriak aztertuz, gure unibertsoari buruzko informazioa edo ondorioak lortzea da helburua.

Beraz, zertarako eraikitzen dugu lagina? Lagina ateratzen edo eraikitzen da populazioaren edo unibertsoaren eredu murrizagoak eraikitzea ezinbestekoa delako, ezin baitugu unibertso guztiarekin lan egin.

Hori egiteko prozedurari laginketa deritzo, lagina lortzeko prozesuari.

Noiz erabiltzen da?

- Aztertu beharreko populazioa infinitua edo oso handia denean
- Populazioa eskurazina denean
- Pretest edo ikerketa piloto bat egin nahi denean
- Denbora gutxian erreportai bat egin nahi denean
- Batez ere, teknika kuantitatiboetan

Nola kalkulatu da? Bi formula desberdin daude. Bat populazioa infinitua denean erabiltzen dena, hau da 100000 pertsona baino gehiagokoa denean. Eta bestea, populazioa 100000 baino txikiagokoa denean, hau da, finitua denean.

-Formula finito:

$$n = \frac{N * Z_{\alpha}^2 * p * q}{d^2 * (N - 1) + Z_{\alpha}^2 * p * q}$$

-Formula infinito:

ILA DE CALCULO

$$n = \frac{Z_{\alpha}^2 * p * q}{e^2}$$

Elementuak

- N=Unibertsoa
- n=lagina

- $\pm E\%$ = Errore marjina

Inkesta bateko lagin batek inoiz ez du informazio zehatza emango, beti errore marjina bat egongo da, beraz, erantzuna beti inguruko zifra bat izango da. Izan ere, ezin da inoiz informazio bera atera pertsona guztiei galdetuta edo lagin bati galdetuta. Beraz, unibertsotik laginera pasatzean errore portzentaia dago, hori da errore marjina.

Errore marjina beraz, ikerketa izateko prest dagoen errore portzentajea izango da. Errore marjina geroz eta txikiagoa izan, lagina handiagoa izango da. Errore marjina txikia izatea nahi bada, laginak handiagoa izan behar du, hau da pertsona gehiago inkestatu beharko dira. Beraz, errore marjinak determinatzen du lagina.

Normalean onartzen den errore marjina txikiena $\pm 1\%$ da, eta handiena $\pm 5\%$.

- Z = konfidantza-maila

Konfidantza mailak emaitzak ikerketarekiko ematen duten konfidantza adierazten du.

Ikertzen den pertsonak emaitzak errealitatearen arabekoak izango direla duen seguritateaz hitz egiten dugu.

Geroz eta konfidantza maila handiagoa nahi izan, geroz eta lagin handiagoa beharko dugu.

Normalean, bi konfidantza mailaekin egiten da lan, 95% edo 99% .

Konfidantza maila 95% danean $Z = 1.96$ eta konfidantza maila 99% danean $Z = 2.58$ izango da. Beraz, Konfidantza maila txikiagoa, Z txikiagoa, Konfidantza maila handiagoan Z igo iten da.

- $P \times Q$ = bariantza

Bariantzak laginaren heterogeneotasuna adierazten du. Hau da, ze puntutaraino den heterogeneoa gure lagina, dibertsoa. Heterogeneoa eta dibertsoa bada, ezaugarri desberdinak ditu. Normalean beti jokutzen da heterogeneitate maximoarekin, gutxitan dagolako lagin homogeneoa. Heterogeneitate maximoa 0.50 da.

$$P = Q = 0.50$$

$$P \times Q = 0.50 \times 0.50 = 0.25$$

LAGINKETA ESTRATIFIKATUA

Zer da estrato bat? Zer da estratifikatzea? Laginak mailaka sailkatu daitezke, hau da, estratifikatu. Bi modu desberdin daude hori egiteko.

1. Afijazio Simplea

Gure lagina zati berdinetan banatzen denean deritzo afijazio simplea.

2. Afijazioo proportzionala

Lagina, proportzionalki banatzen da estrakto desberdinen artean.

ADB. 384ko lagina dut eta auzotan banatu nahi dut. 10 auzo daude.

Afijazio sinplearen bidez banatuz gero, 384 zati 10 egingo dut. Beraz, auzo bakoitzean inkesta kopuru bera egingo dut, auzo bakoitzean bizi den biztanle kopurua kontuan izan gabe.

Baino, auzo guztietan ez da jende kopuru berdina bizi. Hori dela eta, lagina bider auzo jakin bateko biztanleria zati biztanleria osoa kalkulatu behar da. Hori afijazio proportzionala da.

LAGINKETA GAUZATZEKO MODUAK

Informatzaileen bilaketa egiteko, hau da langinketa egiteko bi modu daude.

Horiek honako hauek dira:

Laginketa probabilitiko motak	Laginketa ez probalistiko motak
<ul style="list-style-type: none"> ● Zoriko laginketa ● Laginketa estratifikatua ● Konglomenratu bitarteko laginketa ● Laginketa polietapikoa ● Panel bitartezko laginketa 	<ul style="list-style-type: none"> ● Komenientzazko lagina ● Kuota bitarte egindako laginketa ● Iritzi laginketa ● Elur bolaren bitartez egindako laginketa

Laginketa probalistikoa, populazioari buruzko iturria daukaguean egiten da. Iturririk ez dagoenean, laginketa ez probabilitikoak egiten dira.

Laginketa probabilitikoa

Laginketa probabilitikoan, esan bezela, populazioa biltzen duen datu base bat dago, eta beraz, aurrez jakin dezakegu pertsona bakoitzak hautatua izateko zein probabilitate duen. Datu basu ohikoena zentsua izaten da, laginketa probabilitikoa.

- Zoriko laginketa - Hau erabiltzen da, unibertsoko pertsona guztiek aukeratuak izateko probabilitate bera dutenean, beraz, ez da inongo kriteriorik egongo inor diskriminatzeke. Normalean zozketaren bitartez aukeratzen dira pertsonak. Loteria edo bernubillen kutsa. Zenbaki aleatorien bitartezko aukeraketa. Progesio aritmetikoa, +5-3+2+4. Eragiketa horren bitartez juten da aukeratzen zerrenda baten bidez.
- Laginketa estratifikatua- Laginak mailaka sailkatu daitezke, hau da, estratifikatu.
- Konglomeratu bitarteko laginketa- Konglomeratuetan populazioa ezaugarri komun batek batzen ditu. Ikertzaileak aukeratzen du zein ezaugarriren bitartez batzen dituen informatzaileak. Kriterio batzuk, familiak, auzoak, eskolak, generoa, adin tartea... izan daitezke. Era honetan, konglomeratutan batzen dira. Normalean erabiltzen da populazioa oso handia danean. Adibidez, unibertsitateko ikasleak
- Laginketa polietapikoa- Konglomeratu bitartezko laginketa aplikazioa. Polietapikoak adierazten du pauso desberdinetan egiten dela aukeraketa ezaugarrien bidez. Hau da, ADB. lehenengo aukeratzen den kriterioa, unibertsitatea. Bigarrena, mutilak, eta ondoren 1.maila. Beraz, zehazten joatea da kontua. Konglomeratu baten zati bati bakarrik galdetzen zaio, unibertsitateko 1.mailako mutilei.
- Panel bitartezko laginketa- Panel bitartezko laginketan egiten dena da, informatzaile batzuk hautatu. Horiei iinformazioa denboran zehar behin eta berriro galdetu. Beraz, pertsona horiek denbora tarte luze baten zehar galdera batzuei erantzuteko

konpromisoa hartzen dute. Ikerketan parte hartzera konprometitzen dira denbora luzean. ADB. alzheimerreko neurritzeko ikerketa, haien emaitzak juten ematen die.

Laginketa ez probabilitistikoa

Laginketa ez probabilitistikoa erabiliko da beraz, datu basea ez dagoenean. Ondorioz, informatzaile bakoitzak ezin du jakin aurretik ze probabilitate duen aukerak izateko.

- Komenentziazko lagina- guk eskuragarri, oso urbil, gertu dauzkagun pertsonak inkestatzen ditugunean. Teknika erabilgarria da denborarik ez dagoenean baina ordezkaritza oso txikia izaten da. ADB. pasilloa atea ta aurkitzen degun pertsona iten dieu inkestai.
- Kuota bitartez egindako laginketa- Oso erabilgarria eta erabilia da. Normalean posible da datu baserik ez izatea, baina bai populazio baten ezaugarrien nondik norakoak ezagutzea. ADB. ez dakit zenbat biztanle dien guztia baino badaki %45 gizona dala ta %55 emakumek, edo %45 gaztea dela ta bestek ez. Beraz, ez dakit zehazki zenbat inkestatu behar dituten baño badakit erdik baino gehiok emakumek izan behar duela. Ia gehien erabiltzen den teknika da.
- Iritzi laginketa. Laginketa pertsona multzo batera mugatzen denean ikertzaileak ezarritako kriterio propioa erabiliz. Hala ere, ordezkaritza oso txikia da, kriterioa propioa baita eta horren arabera inkestatzen dira pertsonak. ADB. jakin nahi det ikaslen iritzie baino bakarrik delegatuk inkestatu behar ditut.
- Elur bolaren bitartezko laginketa. Teknika kualitatiboetan erabiltzen da, informazio gutxi dagoenean gai jakin baten inguruan. ADB. nik zautzt felix, ta esateiot bere lau lagun presentatzeko, ta bestelau hoiek beste lau... Kontextua gutxi ezautzen detenen, hastenaiz ezautzeitutenen arten tiratzen ta hoiek beste batzutatik... Lehenengo informatzaileak beste kontaktu sare guztie baldintzatzen do. Asko erabiltzen.